

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 656/2019 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendaren aldaketari**

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinak onesten baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bategina, 74. artikuluan dio administrazio publikoek beren antolaketa lanpostu zerrenden edo antzeko antolamendu tresnen bidez egituratuko dutela.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak honako hau ezartzen du 14.1 artikuluan: "Lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-itunpeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz".

Gainera, uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak, foru kargu publikoaren jarduna arautzen duenak, laugarren xedapen gehigarrian ezartzen du Arabako Foru Aldundiaren langileen plantillan zehaztu behar dela zenbat lanpostu gorde diren behin-behineko langileentzat, lanpostuak nolakoak diren eta langileen ordainsariak zenbatekoak diren.

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko ebo-luzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda (karrerako funtzionarioena zein behin-behineko langileena) era egokian moldatzea eta aldatzea.

Lanpostuak sortzeko ahalmena ematen duen aurrekontu gaitzeari dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen Lurralde Historikoaren 2018rako Aurrekontua Gauzatzearen abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak, zeina abenduaren 28ko 71/2018 Dekretuari jarraikiz luzatu baitzen. Izan ere, haren 24.2, 24.3 eta 24.4 artikulua langileen kudeaketari buruzkoak dira, eta haietan adierazitakoaren arabera, "2018ko ekitaldian, lanpostuen zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onartuko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da, eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da".

Foru sektore publikoko erakundeen aurrekontu plantillaren muga erakunde horietako langile funtzionario eta lan kontratudun langile finkoen plazen gutzirako agregatuari dagokio.

Lehenik, Diputatu Nagusiaren Sailak eskatu du Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuan sortu dadila Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuko teknikari legelariaren lanpostuaren beste dotazio bat (1278.002 kodea). Horrez gain, eskatu du ken dadila zerbitzu horri berorri atxikitako administrari lanpostu bat (2048.001 kodea).

Sail eta zerbitzu berari atxiki zaio fotokonposizioko ofizialaren lanpostua (1577.001 kodea); lanpostu horretako eguneroko zereginetan euskara erabili behar denez, dagokion hizkuntza eskakizuna exijitu beharko da. Beraz, igarotako derrigortasun data erantsiko da.

Bigarrenik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eskatu du sortu dadila errepideetako erdi-mailako teknikari lanpostuaren beste dotazio bat (1241.006 kodea) Bidezaintza Atalean.

Administrazio unitate berean proposatu du ken dadila langilezain lanpostua (1406.001 kodea), lanpostua hutsik baitago titularrak erretiroa hartu zuenetik.

Aurreko paragrafoan aipatutako atal berean, egokiago jotzen da nahitaezko hizkuntza eskakizuna kentzea bideak zaindu eta mantentzeko kontrolatzaile lanpostuari (1540.001 kodea), eta, aldiz, eskakizun hori jartzea herrilantetako langileburu lanpostuari (1404.001 kodea).

Bestalde, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak bere egitura organikoa eta funtzionala egokitu behar izan du diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren edukira, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak ezarri baitziren 2019–2023 agintaldirako. Hori dela-eta, sailak proposatu du ken dadila gaur egungo Ikuskatzailetzako eta Baimenen Kudeaketako Atala, eta haren ordeztatu sortu dadila Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza sortu berriaren mendeko zerbitzu bat, Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzua deritzona.

Lanpostuen zerrendari dagokionez, aldaketa horrek berekin dakar atalaren buruaren lanpostua kentzea (1017.001 kodea) eta garraioa ikuskatzeko zerbitzuaren buruaren lanpostua sortzea (1014.001 kodea), II. eranskinean zehaztutako ezaugarriekin. Horrekin batera, desagertutako atal horri atxikita zeuden lanpostu guztiak zerbitzu berriari (50.2.02) berratziki zaizkio. Zehazki, honako lanpostu hauek dira: garraio zerbitzuko teknikariaren hiru dotazio (1166.001, 002 eta 006) eta garraio zerbitzuko administrariaren beste bost (1319.002, 004, 005, 006, 007).

Hirugarrenik, Kultura eta Kirol Sailak eskatu du ken dadila agiritegiko liburutegiko laguntzaile lanpostua (1552.001 kodea), gaur egun hutsik dagoena, eta sortu dadila idazkaritza teknikoko kudeaketa teknikariaren lanpostua (1499.001 kodea), saileko Idazkaritza Teknikoari atxikia.

Azkenik, 69/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsitako giza baliabideen arrazionalizazio planak ahalbidetu du lurreko eragiketa langileen barne sustapena egitea, beste jarduera batzuen artean. Kasu honetan, lanpostuaren titularrak (1561.001 kodea) D taldetik (C2 azpitaldea) C taldera igoko da (C1 azpitaldea). Beraz, orain arte zuen lanpostua aldatu egin da; aurrerantzean zerga agente laguntzaile deituko da, kode berberarekin, eta IV. eranskinean adierazitako ezaugarriak izango ditu.

I. eta II. eranskinetan zehazten dira, hurrenez hurren, kentzeko eta sortzeko proposatzen diren lanpostuen ezaugarriak. III. eranskinean aldatu beharreko lanpostuak azaltzen dira, eta IV. eranskinean, berriz, aldaketa egin ondoren zerrendan nola ageri diren ikus daiteke. V. eranskinean berratzikitako lanpostuak azaltzen dira.

Alegazio izapidea bete da eta negoziazioa gauzatu da sindikatuetako ordezkariekin, honako arau hauetan xedatutakoaren arabera: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinak onesten baitu enplegatu publikoaren oinarritzako estatutuaren legearen testu bategina, eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, zeinak arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.

Aginduzko txostenak ikusita, haiek direla bide, Arabako diputatu nagusiak proposatuta, eta kontuan edukita Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 6.1.e) artikuluan ezartzen duena, Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak ezartzen duena, Funtzio Publikoaren Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuak ezartzen duena, eta funtzio publikoan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuak ezartzen duena, honako hau:

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeko, ondoren xedatutakoaren arabera:

- I. eranskinean jasotzen diren lanpostuak kentzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.

- III. eranskinean jasotzen diren lanpostuak aldatzea, IV. eranskinean jasotzen diren ezaugarriak kontuan hartuta.

- Lanpostuak berratzikitzea Garraioa Ikusatzeko Zerbitzu berriari (50.2.02): garraio zerbitzuko teknikariaren hiru dotazio (1166.001, 002 eta 006) eta garraio zerbitzuko administrariaren beste bost (1319.002, 004, 005, 006, 007).

Bigarrena. Erabaki honek Gobernu Kontseiluak onesten duen egunaren hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen erakundearen aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera –Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik–.

Gasteiz, 2019ko urriaren 22a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Funtzio Publikoko zuzendaria*

**ADOLFO LANDER VERA**

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	ERA.	LANTOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA		
			BZT.	EZORD.			ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	D.O		BERARIAZKO	
			JARD.	JARD.			ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUAK		ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK
<b>I. ERANSKINA</b>													
<b>LANPOSTUEN ZERRENDA</b>													
<b>LANPOSTUAK KENTZEA</b>													
<b>50 Sailea BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA</b>													
<b>50.1 Zuzendaritza BIDE AZPIEGITURAK</b>													
<b>50.1.02 Zerbitzua ERREPIDEA</b>													
1406.001	LANGILEZAINA	EB	B	3	L	AFA	C1C2	222	2	200	18	24.453,75	VITORIA-GASTEIZ
<b>50.1.07 Zerbitzua MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA</b>													
<b>50.1.07.1 Atala IKUSKATZAILETZA ETA BAIMENEN KUDEAKETA</b>													
1017.001	IKUSKATZAILETZA ETA BAIMENEN KUDEAKETA ATALAREN BURUA	B	B	3	L	EAE	A1	11	240	200	25	39.445,65	VITORIA-GASTEIZ
<b>70 Sailea KULTURA ETA KIROLA</b>													
<b>70.1 Zuzendaritza KULTURA ETA KIROLA</b>													
<b>70.1.01 Zerbitzua AGIRITEGIAK</b>													
1552.001	AGIRITEGIKO LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	EB	B		L	AFA	C1C2	12	2		14	15.472,65	VITORIA-GASTEIZ
											221		
<b>Lanpostu Totala:</b>											<b>3</b>		

Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

PAG. 1

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	ERA.	LANTOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA		
			BZT.	EZORD.			ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO		D.O	BERARIAZKO
			JARD.	JARD.			ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUAK		ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK
<b>II. ERANSKINA</b>													
<b>LANPOSTUEN ZERRENDA</b>													
<b>LANPOSTUAK SORTZEA</b>													
<b>50 Saila BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA</b>													
<b>50.1 Zuzendaritza BIDE AZPIEGITURAK</b>													
<b>50.1.02 Zerbitzua ERREPIDEAK</b>													
<b>50.1.02.5 Atala BIDEZAINITZA</b>													
1241.006	ERREPIDEETAKO	EB B	L	AFA	A 2	212	317	3	200	22	30.650,85	VITORIA-GASTEIZ	
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA													
<b>50.2 Zuzendaritza MUGIKORTASUN ETA GARRAIOA</b>													
<b>50.2.02 Zerbitzua GARRAIOA IKUSKATZEA</b>													
1011.001	GARRAIOA IKUSKATZEKO	B B	L	EAE	A 1	11	240	3	240	27	43.425,30	VITORIA-GASTEIZ	
ZERB. BURUA													
<b>70 Saila KULTURA ETA KIROLA</b>													
<b>70.1 Zuzendaritza KULTURA ETA KIROLA</b>													
<b>70.1.08 Zerbitzua KULTURA ETA KIROLEKO IDAZKARITZA TEKNIKOA</b>													
1498.001	IDAZKARITZA	EB B	L	AFA	A 1	211	230	3	01/01/2019	25	30.581,10	VITORIA-GASTEIZ	
TEKNIKOKO KUDEAKETA													
TEKNIKARIA													
											<b>Lanpostu Totala: 3</b>		

Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

PAG. 1

KODEA	IZENA	MOTA	DEJ.ERREG.		BET.	LANTOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
			BZT.	PREST.		ESKALA	IKASKETA	BERARIAZKO	D.O		BERARIAZKO
			JARD.	JARD.	ERA.	ESKALA	TITULUAK	ESKAKIZUNA	ESKAKIZUNA		
<b>III. ERANSKINA LANPOSTUEN ZERRENDALANPOSTUAK ALDAKETARIK GABE</b>											
<b>02 Saila DIPUTATU NAGUSIA</b>											
<b>02.1 Zuzendaritza KABINETEA ETA KOMUNIKAZIOA</b>											
<b>02.1.06 Zerbitzua IDAZKARITZA TEKNIKOA ETA HERRITARRENTZAKO ARRETA</b>											
1577.001	FOTOKONPOSIZIOKO OFIZIALA	EB B			L	213	418	2	15	16.515,90	VITORIA-GASTEIZ
						C 1 C 2					
<b>20 Saila OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK</b>											
<b>20.1 Zuzendaritza OGASUNA</b>											
<b>20.1.02 Zerbitzua ZERGAK IKUSKATZEA</b>											
1561.001	LURREKO ERAGIKETA LANGILEA	EB B	3		L	12		2	15	20.476,65	VITORIA-GASTEIZ
						C 1 C 2					
<b>50 Saila BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA</b>											
<b>50.1 Zuzendaritza BIDE AZPIEGITURAK</b>											
<b>50.1.02 Zerbitzua ERREPIDEAK</b>											
<b>50.1.02.5 Atala BIDEZAINZTA</b>											
1404.001	HERRILANETAKO LANGILEBURUA	EB B			L	222		2	15	21.466,95	VITORIA-GASTEIZ
						C 1 C 2					
1540.001	BIDEAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO KONTROLATZAILEA	EB B	2		L	222		2	15	19.753,65	VITORIA-GASTEIZ
						C 1 C 2		01/01/2014			
										<b>Lanpostu Totala: 4</b>	
<b>PAG. 1</b>											

Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA		
			BZT.	EZORD.		ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	D.O		BERARIAZKO	
			JARD.	JARD.	ERA.	ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUA	ESKAKIZUNA	MAILA	OSAGARRIA
<b>IV. ERANSKINA</b>												
<b>LANPOSTUEN ZERRENDA</b>												
<b>LANPOSTUAK ALDATUTA</b>												
<b>Arabako Foru Aldundia</b> Diputación Foral de Álava												
<b>02 Saila DIPUTATU NAGUSIA</b>												
<b>02.1 Zuzendaritza KABINETEA ETA KOMUNIKAZIOA</b>												
<b>02.1.06 Zerbitzua IDAZKARITZA TEKNIKOA ETA HERRITARRENTZAKO ARRETA</b>												
1577.001	FOTOKONPOSIZIOKO OFIZIALA	EB	B		L	AFA	C 1 C 2	213	418	2	15	16.515,90
								222		01/01/2019		VITORIA-GASTEIZ
<b>20 Saila OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK</b>												
<b>20.1 Zuzendaritza OGASUNA</b>												
<b>20.1.02 Zerbitzua ZERGAK IKUSKATZEA</b>												
1561.001	ZERGA AGENTE LAGUNTZAILEA	EB	B	3	L	AFA	A 2 C 1	12		2	17	20.055,45
								221				VITORIA-GASTEIZ
<b>50 Saila BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA</b>												
<b>50.1 Zuzendaritza BIDE AZPIEGITURAK</b>												
<b>50.1.02 Zerbitzua ERREPIDEAK</b>												
<b>50.1.02.5 Atala BIDEZAINNTZA</b>												
1404.001	HERRILANETAKO LANGILEBURUA	EB	B		L	AFA	C 1 C 2	222		2	15	21.466,95
										01/01/2019		VITORIA-GASTEIZ
1540.001	BIDEAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO KONTROLATZAILEA	EB	B	2	L	AFA	C 1 C 2	222		2	15	19.753,65
												VITORIA-GASTEIZ
											<b>Lanpostu Totala:</b>	<b>4</b>
Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an												
											<b>PAG. 1</b>	